

**Lehen haurtzaroaren harreran euskarazko zerbitzu  
eskaintza bati buruzko komunikazioa**

**Kargu kaiera**

**Proposamenen emateko data : 2010eko apirilaren 6a**

## **Proiektuaren aurkezpen orokorra**

---

EEPren eginkizuna euskararen aldeko hizkuntza politika baten obratzea da. Horretarako, EEPk Hizkuntza Politika Proiektu bat definitu du, helburua "hiztun osoen kopurua emendatzea" izanez eta lehentasuna belaunaldi gazteeri emanaz. Hizkuntza Politika Proiektua 12 ekintza-eremutan zatitua da, hauek hizkuntzaren transmisioan edo/eta erabilpenean eragina baitute.

Hizkuntza Politika Proiektuaren lehen haurtzaroaren atalean adierazia den bezala, EEPk helburutzat dauka lehen haurtzaroaren harrera kolektiboan euskarazko zerbitzu eskaintza baten egituratzea, familia guzietan lurralde osoan horrelako eskaintza baten hautatzeko aukera izan dezaten.

Horri jarraikiz, EEP, Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, Baionako CAF-a eta Hego Akitaniako MSA biltzen dituen Labelizatze dispositibo bat plantan jarria izan da. Dispositibo honen helburua da euskararen transmisioaren segurtatzeko gisan, haurren harreran euskarazko zerbitzu eskaintza baten egituratzea, denbora berean kalitatezko harrera atxikiz.

Orain arte egiten den eskaintzatik abiatuz, hiru harrera eredu definituak izan dira. Bakoitzarentzat beharrezkoak diren baliabideak zerrendatzen dituen kargu kaieretan oinarrituak dira :

- A eredu** : egiturako profesionalek, harrera bakoiztua eskaintzen dute, euskaraz ala frantsesez familiaren hautuaren arabera.
- B eredu** : harrera euskaraz egiten da, egituran dagoen haur ororentzat.
- C eredu** : harrera segurtatua euskaraz eta frantsesez, parekotasunean, egituran dagoen haur ororentzat.

(Ikus eranskinean den kargu kaiera)

Dispositibo hori lau partaide publikoak biltzen dituen Labelen batzorde tekniko batek gidatzen du. Batzorde honen eginkizuna da labelen egozte eta egitura labelizatuen jarraitzea.

Labelizatuak izan daitezke jadanik dauden harrera egiturak, bai eta ere oraindik irekiak ez direnak. Labelen batzorde teknikoak A, B edo C labela ematen ahalko dio egiturari kargu kaieretan finkatu irizpideen arabera eta eragileak aurkeztu labelizatze eskabide txostena aztertu ondoan. Kargu kaierako irizpideak errespetatuak ez badira, egitura "labelizatze bidean" izendatua izan daiteke. Kasu horretan EEPk eta egiturako kudeatzaileak laguntza plangintza bat definituko dute, honetan finkatuak izanen baitira kargu kaieran idatzi betebeharrei erantzuteko hartu beharreko neurriak, ondotik labelizatua izateko helburuarekin.

## **Komunikazio enpresari galdegina zaion lana**

---

Galdegina dena da komunikazio tresnen ekoiztea lehen haurtzaroaren harreran euskarazko zerbitzu eskaintza ezagutarazteko.

Publiko haundiak jakin behar du eskaintza hori badela eta balia dezakela. Horretarako, eskaintza agerian ezarri beharko du karta grafiko bat eratuz, eta haren aniztasuna erakusteko, bakoitzarentzat logo ezberdin bat sortuz.

Eredu bakoitzari izen bat emana izan beharko zaio, berriz ere publiko haundiak errexkiago identifika ditzan eta ezberdin ditzan.

Azkenik, karta grafikoa errespetatuz eta labelen batzorde teknikoak egin dokumentu administratiboetarik abiatuz, komunikazio enpresak bi informazio/komunikazio dokumentu ekoizti beharko ditu, eragileei eta aitamei zuzenduak izanen zaizkienak.

## **Loten eta euskarrien definizioa**

---

### **1.lotea :**

#### **Eredu bakoitzari izen baten ematea. Honek beharko du :**

- ereduaren edukia adierazi ;
- neutroa izan, eta :
  - balio epairik gabekoa izan ;
  - hiru modeloen artean hierarkiarik ez izan.
- modeloen arteko ezberdintasunak argiki erakutsi ;
- euskara dakitenek nola ez dakitenek aise beretzeko egina izan.

### **2.lotea :**

#### **Karta grafiko orokor baten eratzea. Honek kontutan hartu beharko du :**

- publiko zabalak identifikatuko beharko duela lehen haurtzaroaren harreran euskarazko zerbitzua ;
- eredu bakoitzaren logoetan eta euskarazko harreraz ari diren beste dokumentu mota guzietan adierazia izan beharko dela.

### **Modelo bakoitzarentzat logo baten sortzea :**

Hiru modeloentzat logo bat egin beharko da eta logo bakoitzak beste itxura bat hartu beharko du egitura "labelizatze bidean" izendatua izanen direlarik.

Logo horiek beharko dute :

- karta grafikotik abiatuz sortuak izan ;
- ereduaren izena agertarazi ;
- neutroak izan eta balio epairik gabekoak izan. Ez dute hierarkiarik adierazi beharko hiru modeloen artean, aldiz, labelizatua den egituraren logoa eta "labelizatze bidean" den egituraren logoaren artean hierarkia argia eta adierazia izan beharko da.
- erabiliak ahal izan :
  - euskarri numeriko batean, egiturako kudeatzaileak sekulan bere dokumentuetan holako euskarri gehitu nahi badu ;
  - paperezko euskarri batean, egituraren afitxatua izateko posibilitatea utziz.

Jakinazten dugu, lote bakoitzarentzat EEPk komunikazio enpresa ezberdinak hautatzen ahal dituela eta karta grafikoaren erabilpenaren jabe izan nahi duela beste loteentzat beste komunikazio enpresaren lanak hautatzen baldin badira ere.

Karta grafiko hori konpatible izan behar da euskarri mota guzietan eta bereziki euskarri numerikoekin.

### **3. lotea :**

Dokumentu elebidun baten ekoiztea aitamei zuzendua izanen zaiena, labelizatuak diren eta "labelizatze bidean" diren lehen haurtzaroko harrera egituretan banatuz.

- helburuak :
  - aitameri gogoia eman beren haurra euskarazko harrera edo harrera elebiduna proposatzen duten egitura batean ezartzeko, honen interesa adieraziz ;
  - aitameri argiki eta molde pedagogikoan azaldu hiru eredu ezberdinen edukia ;
- dokumentuak berriz hartu beharko ditu ondoko elementu grafikoak :
  - haurren harrera kolektiboan euskarazko zerbitzuaren karta grafikoa (ikus 2. lotea) ;
  - labelizatze dispositiboari doakion hitzarmena izenpetu duten lau partaide publikoen logoak.
- euskarriak :
  - paperezko euskarria ;
  - euskarri numerikoa.
- paperezko euskarriak imprimatu 500 aletan.

## **Liburuxka elebidun baten ekoiztea euskarazko harrera proposatu nahi duten eragileei zuzendua izanen zaiona.**

- helburua :
  - eragilea motibatu euskarazko harreraren interesa erakutsiz ;
  - labelizatze dispositiboaren edukia azaldu manera pedagogikoan : hiru ereduak zoin diren, labelen batzorde teknikoaren eginkizunak zoin diren, ... ;
  - egitura batek labelizatua izan nahi badu, segitu behar dituen urratsak manera pedagogikoan esplikatuz.
- edukia ondoko dokumentu administratiboetan oinarritua izan beharko da :
  - lau partaide publikoek izenpetu hitzarmena, eta honi doakion eranskina, hiru modeloen kargu kaierak zehazten dituen ;
  - labelen batzorde teknikoaren funtzionamendu araudia ;
  - labelizatze prozedura.
- dokumentuak ondoko elementu grafikoak berriz hartu beharko ditu :
  - haurren harrera kolektiboan euskarazko zerbitzuaren karta grafikoa (ikus 2. lotea) ;
  - labelizatze dispositiboari doakion hitzarmena izenpetu duten lau partaide publikoen logoak.
- euskarriak :
  - paperezko euskarria ;
  - euskarri numerikoa.
- paperezko euskarriak imprimatu 50 aletan.

### **Galdegina dena :**

- sinopsiaren sortzeko eta testuen idazteko laguntza ;
- euskarrien sorkuntza (euskarrien hautua, maketa...) ;
- errealizazio lana eta imprimaketa.

## **Eskubideen saltzea**

---

Euskararen Erakunde Publikoak komunikazio enpresak eginikako lanak erosten baditu, orduan lan horien erabiltzeko eskubide guztien jabe izanen da (irudizko euskarriak, karta grafikoak, logotipoak...). Eskubide horiek muga gabeko denboraldi batean ukanen ditu EEPk eta nahi duen tokian.

## **Hautagaiek EEPri galdegin ondoan ukaten ahal dituzten dokumentuak**

---

- lau partaide publikoek izenpetu hitzarmena, eta honi doakion eranskina, hiru modeloen kargu kaierak zehazten dituen ;
- labelen batzorde teknikoaren funtzionamendu araudia ;
- labelizatze prozedura.

### **Dokumentu horien eskuratzeko, EEPko zerbitzueri galdea egin behar zaie.**

Komunikazio enpresa diskrezioa atxikitzen behartua da.

## **Epeak**

---

Proposamenak helaraziak izan behar zaizkigu berantenez 2010eko apirilaren 6-ko, 17:00etako, gutun-azal zigilatu batetan.

Merkatuaren egozteak : apirila bukaeran.

## **Hautagaienganik igurikatzen duguna**

---

Orokorki, lote bakoitzaren aurrekontuez gain, hautegaienganik espero dugu proposamen zehatz eta landu bat, eraman beharreko komunikazio estrategiari buruz eta komunikazio tresnei buruz.

### **1. lotea :**

Izenen proposatzea hiru ereduentzat, argumentatuz.

### **2. lotea :**

Karta grafiko baten proposatzea, argumentatuz.

Kostuaren aurrekontu zehatz baten azaltzea ondoko lan bakoitzarentzat :

- sorkuntza lana ;
- fabrikazio lana ;
- euskarrien honera ekartzea (EEPra).

### **3. lotea :**

Komunikazio bi dokumentuentzat, sinopsiaren eta paperaren formatuaren proposatzea, argumentatuz.

Kostuaren aurrekontu zehatz baten azaltzea ondoko lan bakoitzarentzat :

- sorkuntza lana ;
- fabrikazio lana ;
- euskarrien honera ekartzea (EEPra).

## **Gure hautuaren egiteko kontutan hartu irizpideak**

---

- Kargu kaiera behar bezala betea dela.
- Proposatua denaren argumentazioa kalitatezkoa dela.
- Lehen haurtzaroan, euskarazko harrerai doakion berezko problematikaren ongi ulertua dela.
- Proposamenaren balio teknikoa.
- Proposamenaren kostu orokorra.

## Eranskina : Hiru ereduaren kargu kaierak

| A eredia  | B eredia   | C eredia   |
|---|--|--|
| <b>1- Hautu linguistikoa eta familien informazioa</b>   |  |  |
| <p>- Egitasmo linguistikoa, egitura-proiektuan idatzia da.</p> <p>- Familia guztiak jakinean ezarriak dira, beren hautuaren arabera, egiturako profesionalak, haurrekin, buruz burukako harremanean frantsesez ala euskaraz egin dezaketela.</p> <p>- Izen emate dokumentuan argiki idatzia da, familiek hautatutako hizkuntza zein den.</p> <p>- Horretarako hautua egin duten familien haurrekin, profesionalak egun guziaz euskaraz mintzatuko dira.</p> | <p>- Egitasmo linguistikoa, egitura-proiektuan idatzia da. Familia guztiak jakinean ezarriak dira, beren haurra egun guziaz euskarazko ingurune batean murgildua izanen dela.</p> <p>- Integrazioaren haurren ama-hizkuntza euskara ez harreraren hastapenean, buruz burukako harreman haurren ama-hizkuntzan itzuliko da.</p> | <p>- Egitasmo linguistikoa, egitura-proiektuan idatzia da. Familia guztiak jakinean ezarriak dira, beren haurra egun osoa ingurune elebidun batean murgildua izanen dela, profesionalen erdia egun osoan euskaraz ari baita, eta beste frantsesez.</p> <p>- Euskaraz ari den erreferente bat eta frantsesez ari den erreferente bat, memento berean eta espazio bakarrean ari dira.</p> <p>- Harreraren hastapenean, ulermen zailtasunak ageri badira, haurren ama-hizkuntzan ari den erreferenteak buruz burukako solasak itzuliko ditu, erreferente bat/hizkuntza bat sistema errespetatuz beti ere.</p> |
| <b>2- Buruzko bururako solasaldiak eta taldekako aktibitateak</b>   |  |  |
| <p>- Osatu taldeen baitan, buruz burukako solasaldiak, burusoek hautatu hizkuntzan egingen dira.</p> <p>- Taldekako aktibitateen kariatara emandako konsignak beti bi hizkuntzetan ematen dira.</p>   | <p>- Osatu taldeen baitan, buruz burukako eta taldekako solasaldiak osoki euskaraz dira.</p>   | <p>- Haur talde bakoitzarentzat, guttienez euskaraz ari den profesional bat eta frantsesez ari den profesional bat izanen da.</p> <p>- Haur guzientzat, buruz burukako solasak hizkuntza batean zein bestean egingen dira, mintzo den erreferentea nor den.</p> <p>- Taldekako aktibitateen kariatara emandako konsignak beti bi hizkuntzetan ematen dira, hots erreferente bakoitzak bere hizkuntza.</p>  |
| <b>3-Seinaletzak</b>  |  |  |
| A, B eta C ereduentzat, afixek eta seinaletzak egituraren eleaniztasuna islatu beharko dute, eta ondorioz bi hizkuntzetan egingen dira beti ere.  |  |  |
| <b>4- Langilegoaren hizkuntza gaitasunak</b>  |  |  |
| <p>- 2000ko agorriaren 1eko dekretuak eta 2000ko abenduaren 26eko arauak finkatu irizpideak errespetatuz beti ere : langilegoaren %100ak elebiduna izan behar du.</p>   | <p>- 2000ko agorriaren 1eko dekretuak eta 2000ko abenduaren 26eko arauak finkatu irizpideak errespetatuz beti ere : langilegoaren %100ak elebiduna izan beharko du.</p>  | <p>- 2000ko agorriaren 1eko dekretuak eta 2000ko abenduaren 26eko arauak finkatu irizpideak errespetatuz beti ere :</p> <p>- Egunduz, harreraren ari den zein langilego teknikoaren %50a elebiduna izanen da. Horretarako %50eko tasa hori errespetatu beharko da hiru langilego klase hauentzat :</p> <p>--&gt; Haur artatzaile, Haur artatzailetzan laguntzaile, haur gazteen hezitzaile, edota erizain titulua duen langilegoa</p> <p>--&gt; Lehen Haurtzaroko CAPa edo hein bereko titulua duen langilegoa</p> <p>--&gt; Gainerateko langilegoa</p>  |
| <b>5- Ernatze materiala</b>   |  |  |
| - Eredutik linguistikoko eratzeko gisako materiala eskuratu beharko du egiturak: liburuak, KDak, jokoak..   |  |  |
| <b>6- Familiekilako komunikazioa</b>  |  |  |
| <p>- Profesionalak egituraren dauden haurren familiekilako komunikazioan arreta berezia jarriko dute, beren ihardukitze edota galderei erantzuteko, egiturak daraman eredu linguistikoa haiekin partekatze koherentzia baten bermatzeko gisan (proiektua balorizatu, etxean ere gauza dadin posible delarik...).</p> <p>- Bestalde, familiei banatu dokumentuetan euskararen presentzia zainduko dute profesionalak.</p>                                    |  |  |
| <b>7- Animazioak</b>  |  |  |
| - Eredutik linguistikoa errespetatuko da behin behineko animazioen antolatze tenorean (agerraldi, kontalari, beste egiturekiko lankidetzetan...): euskaraz egingen dira B ereduaren kasuan, euskara eta frantsesa orekatuz A eta C ereduentzat.   |  |  |